


ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA (EKI) 2004KO IRAILA

Euskal AEko eraikuntzaren kostuak %0,5 igo ziren 2004ko irailean

Azken hamabi hilabeteetan (2004ko iraila, 2003ko irailarekin alderatuta) eraikuntzaren kostuak %7,0 gehitu ziren.

2004ko irailean, Euskal AEko Eraikuntzaren Kostuen Indizea %0,5 igo zen, aurreko hilaren aldean, EUSTATen datuen arabera. Iraileko urte arteko tasa %7,0era iritsi zen; %3,8ra lan-eskuan eta %8,6ra lehengaien kostuan.

Urte arteko aldakuntza-tasak, 1996-2004



(*) Gehikuntza iraileko urte artekoa da

Iturria: EUSTAT

Lehengaien kostuak %0,7 igo ziren, aurreko hilaren aldean, eta bilakaera desberdinak izan zituzten *eraikuntzan* (%0,7) eta *obra zibilean* (%0,5). Azpisektore horien urte arteko bilakaerari begiratuz gero, ikusiko dugu kontsumitutako lehengaiak dagokienez ere ibilbide homogeneoak izan zituztela: *eraikuntzako* lehengaien kostuak %8,7 igo ziren eta *obra zibilekoak* %8,3.

Irailean prezio hazkunderik handienak kontsumitutako honako lehengaiak izan zituzten: *harri elaboratua* (%5,3), *burdina eta altzairua* (%4,3), *asfalto-produktuak* (%2,6) eta *petroliotik eratorritakoak* (%2,4) lehengaiak. Aitzitik, hileko prezioetan murrizketak izan zituzten *olioak eta koipeak* (%-3,4), *beira* (%-2,9), *energia elektrikoa* (%-1,0), *ateratze-agregatuak* (%-0,7) eta *karea, igeltsua eta eskaiola* (%-0,4) lehengaiak.

Sektoreak kontsumitutako lehengaien artetik, azken hamabi hilabeteetan, hauek izan zituzten inflazio-tasarik handienak: *metalezko hoditeria* (%39,3), *burdina eta altzairua* (%36,3), *asfalto-produktuak* (%24,8), *petroliotik eratorritakoak* (%21,2) eta *zementutik eratorrirako gaiak* (%9,8) lehengaiak. Bestalde, urteko arteko prezioetan (2004ko iraila, 2003ko irailaren gainean), murrizketak izan zituzten *beira* (%-4,5), *leherkariak eta gasak* (%-2,4), *bulego-materiala* (%-1,8), *energia elektrikoa* (%-0,4) eta *olioak eta koipeak* (%-0,1) lehengaiak.

ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA. EUSKAL AE / DATU AURRERAPENA					2004KO IRAILA
GOIBURUAK	INDIZEA Oin., 2000= 100	GEHIKUNTZAREN %			
		Aurreko hilaren aldean	Aurreko urteko hil beraren aldean	Aurreko abenduaren aldean	
KOSTUA GUZTIRA	115,0	0,5	7,0	6,9	
ERAIKINAK	114,9	0,5	7,2	7,0	
OBRA ZIBILA	115,4	0,3	6,6	6,5	
LEHENGAIEN KOSTUA	112,6	0,7	8,6	8,4	
ERAIKINAK	112,6	0,7	8,7	8,4	
OBRA ZIBILA	112,6	0,5	8,3	8,0	
LAN-ESKUAREN KOSTUA	120,6	0,0	3,8	3,8	

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiagorako:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945 01 75 00 Faxe: +34-945 01 75 01 E-maila: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Perez Aja

Tel.: +34-945 01 75 05. Faxe: +34-945 01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp